



LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia
Europako Gaietarako Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de
Acción Exterior
Dirección de Asuntos Europeos

**Europar Kontseiluaren ohiz kanpoko bilerari buruzko oharra
(EBTaren 50. artikulua)
Brusela, 2017ko urriaren 20a**

Oharra: Europar Kontseilua ez da Erresuma Batuak Batasunetik alde egiteari buruzko negoziazioak egiteko eztabaidagunea; lan hori Erresuma Batuak eta Europar Batasunak horrexetarako izendatu dituzten talde negoziatzaileei dagokie, eta 2017ko ekainaren 19an hasi zuten negoziazioen lehen fasea. Geroztik, 5 negoziazio erronda izan dira, hiru eztabaida gai nagusirekin:

- i. Hiritarren eskubideak babestu: Erresuma Batuan bizi/lan egiten duten edo egin duten EBko 27 Estatu Kideetako hiritarren eskubideak eta EBko 27 Estatu Kideetan bizi/lan egiten duten edo egin duten Erresuma Batuko hiritarren eskubideak.*
- ii. Erresuma Batua EBko kide izan den denboraldi osotik ondorioztatzen diren obligazio finantzieroen kitapenari buruzko akordioa (kitapen finantzieroa);*
- iii. Erresuma Batua eta Irlandaren arteko mugari buruzko akordioa eta Ostiral Santuko bake akordioen babesa.*

Europar Kontseiluak 2017.04.29an egin zuen ohiz kanpoko bileran (EBTaren 50. artikulua) onartutako Orientazioen 4 puntuko azken esaldiaren arabera: “Europar Kontseiluak gertutik jarraituko dio negoziaketan garapenari, eta zehaztuko du noiz lortu den aurrerapen nahikoa hurrengo fasea hasteko”.

Prozedimentu hori jarraituz, 2017.10.20an Europar Kontseiluaren egin zuen ohiz kanpoko bileran (EBTaren 50. artikulua), Batasuneko 27 estatu etako estatuburu eta gobernuburuak, negoziaketan aurrerabideei buruzko ondorio-testu bat onartu zuten.

Era berean, Europar Kontseiluarekin batera (EBTren 50. artikulua), Batasuneko 27 estatu etako estatuburu eta gobernuburuak eztabaida politikoa izan zuten Sendagaien Europako Agentzia eta Europako Banku Agintaritza birkokatzeari buruz, Erresuma Batuak Europar Batasunetik alde gingo duela-eta.

Ondorioak

Lehenengo bost negoziazio-erronden argitan, EBko negoziatzaileak aurkeztutako ebaluazioa kontuan hartuta, eta 2017.04.29an ezarri zituen jarraibideei eutsiz, Europar Kontseiluak:

- ontzat ematen du hiritarren eskubideei buruz egindako aurrerapena, eta lortutako adostasuna oinarritzat hartuz deitzen dio negoziatzaileari, horren bidez beharrezkoak diren segurtasun eta berme juridikoak eskaintzeko ukitutako herritar guztiei eta euren familiei; izan ere, horiek ahalmena izan beharko dute EBko legeak ematen dizkien eskubide guztiak zuzenean erabiltzeko, eta

babestuta egon beharko dute EBtik ateratzeko akordioaren aldetik. Horren barnean sartzen dira prozedura administratibo azkar eta errazak eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren rola.

- aitortzen du ezen, Irlandari dagokionez, nolabaiteko aurrerapena egin dela Ostiral Santuko Akordioa babestearekin eta Zirkulazio Eremu Komuna mantentzearekin zerikusia duten printzipio eta helburuetan; halaber, printzipio horiek gehiago zehazteko eskatzen dio EBko negoziatzaileari, kontuan hartuta Erresuma Batuaren irteerak sortzen duen aparteko erronka; horren barnean sartzen da muga zorrotza saihestea, eta, hortaz, espero da Erresuma Batuak irtenbide malgu eta irudimentsuak aurkeztu eta onartuko dituela, Irlandaren egoera bereziak hala eskatzen baitu.
- azpimarratzen du ezen, nahiz eta Erresuma Batuak adierazi duen EBko kidea izan zen garaian hartutako finantza-betebeharrak beteko dituela, hori ez dela oraindik ere islatu Erresuma Batuaren konpromiso irmo eta konkretu batean, betebeharrak horiek guztiak betetzeari dagokionez.

Aurrerapen hori oinarritzat hartuta, Europar Kontseiluak eskatzen du lanean jarraitu dadila lortutako adostasuna finkatzeko eta negoziazioek aurrera egin dezatela, horien bigarren fasera ahalik eta arinen pasatu ahal izateko.

Abenduan izango duen hurrengo saioan, Europar Kontseiluak berriz ebaluatuko du negoziatioetan egindako aurrerapena, horren bidez erabakitzeke ea aurrerapen nahikorik lortu ote den goian aipatutako hiru gaietan.

Hala bada, beste orientazio batzuk aprobaturatu dituzte etorkizuneko harremanaren egiturari begira eta EBren intereserako onak izan daitezkeen trantsizio-konponbideei begira, beti ere 2017.04.29ko orientazioen baldintza eta funtsezko printzipioekin bat etorritik.

Testuinguru hori kontuan hartuta, Europar Kontseiluak barneko prestatze-eztabaidak hasteko eskatzen die Kontseiluari (50. Artikulua) eta EBko negoziatzaileari.